

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Bermeoko San Martin kaleko 9 eta 11 zenbakietako 36 Babes Ofizialeko Etxebizitzak eskualdatzeko zozketa arautzeko oinarriak.**

Bermeoko Urigintza Barrizatze Alkartea, S.A.-Beruala, S.A.-ren Batzar Nagusiak, 2020ko abenduaren 18an, SAN MARTIN kaleko, 9 eta 11 zenbakidun eraikinean 36 Babes Ofizialeko Etxebizitza, trasteleku eta garaje partzela saltzeko prozedurari hasiera ematea eta salmentaren oinarriak onartu ditu.

- Espediente zenbakia: EB2-1434/09.
- Esku-hartze mota: BOE, Erregimen Orokorrekoa.
- Kopurua: 36 etxebizitza, bakoitza trastelekua eta garajearekin
- Kokalekua: San Martin, 9-11.
- Herria: Bermeo.

Bermeon, 2020ko abenduaren 18an.—Beruala, S.A.-ko Presidentea, Aritz Abaroa Cantuariense

**OINARRIAK****1. Etxebizitzak esleitzeko araubidea eta prezioa**

San Martin kaleko 20.3 E.U.ko 2. partzelan Babes Ofizialeko 36 etxebizitza sustatu ditu Bermeoko Urigintza Barriztatze Alkartek (Beruala, S.A).

36 etxebizitza dira; 7 etxebizitza 2 logeladunak dira, eta 29 etxebizitza 3koak; bakoitza bere trasteleku eta garaje-partzelarekin. Logela biko etxebizitza bi egokituta daude mugikortasun murriztu iraunkorreko pertsonentzat.

Salmenta jabetza osoan izango da, Eusko Jaurlaritzak 2020ko uztailaren 30ean EB2-1434/09 espediente zenbakiarekin esleituriko behin betiko kalifikazioan finkatzen den bezala.

2010eko azaroaren 3ko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Aginduan, babes ofizialeko etxebizitzaren gehienezko prezioak finkatzeari buruzkoan xedatzen denarekin jarraituz, salneurriak 139.053, 83 eurotik 158.038,62 eurotara (%10 BEZ barne, edo indarrean dagoen portzentaia salmenta egiten denean) dira.

I. eranskinean zehaztuko dira etxebizitzaren zerrenda, bere ezaugarri eta prezioekin.

2. Etxebizitzaren esleipendun izateko baldintzak

Deialdi honetan esleitzeko diren etxebizitzetako baten esleipendun izateko legezko ahalmenari buruzko baldintza orokorrez gain, ondorengo baldintzak ere bete beharko dira, eta izaera pertsonalekoak, behar ekonomikoarenak eta ezintasunaren gainekoak ezargarri den Eusko Jaurlaritzaren araubidean zehaztuak daudenak izango dira, batik bat, hurrengo legedian:

- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena
- Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileren erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa; 2012ko abenduaren 12ko AGINDU bidez zuzendutakoa.
- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriari buruzkoa.

Aipatzen diren baldintza horiek, 2021eko urtarrilaren 31erako bete beharko dira.

Orokorrean, hauexek dira babes ofizialeko edozein etxebizitza eskuratzeko baldintzak:

- a) Adin nagusikoa edo emantzipatua izatea.
- b) Etxebizitza-premia izatea, horretarako ezarritako arauen arabera. Arau orokor honi salbuespenak ezartzen zaizkio, 2012ko urriaren 15ekoa AGINDUAK, bere 9. artikuluan.
- c) Euskadin erroldatuta egotea urte bat gutxienez baldintza hauek onartzen direnetik, gutxienez etxebizitzak izango duen titularretako bat. Prozedura honetan, lehentasuna izango dute Bermeon erroldatuta egon direnak gutxienez urte bete oinarri hauek onartzen direnean.

2.1. Baldintza pertsonalak

Esleipena jasotzen dutenak adinez nagusiko pertsona fisikoak izango dira.

Bizikidetzaren unitateen kasuan, adinez nagusi diren guztiek izan beharko dute titularkide, ezinbestean, ondorengo egoeretan:

- Irabazpidezko araubidepean ezkonduko ezkontideak. Kasu honetan, bakoitzak jabetasunaren %50a izango du.
- Ondasunen banaketa-araubidea duten ezkontideak eta izatezko bikoteak, baina hauek titular-kidetasunaren portzentaia erabaki ahal izango dute.

Etxebizitzetako baten esleipendun izateko, bakarka aurkeztuko den pertsonak edota titular moduan agertu nahi duen bizikidetzaren unitatea osatzen duten guztiak Etxebide -



Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egon beharko dira.

Bermeon azken urtebetean -oinarri hauek BAO n argitaratzen direnetik- errolatuta dauden eskatzaileak zozketatu beharreko etxebizitzak baino gutxiago izanez gero, gai-nontzeko etxebizitzaren zozketarako eskaera guztien artean lehentasuna izango dute aurreko baldintza bete gabe Bermeon errolatuta daudenean; betiere oinarri hauek onartu baino lehen errolatuta badaude, eta ondoren, Busturialdea-Artibaiko eremu funtzional-eko udalerrietako batean errolatuta daudenean.

128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. III Eranskina

Busturialdea-Artibaiko Eremu Funtzionala: Ajangiz, Amoroto, Arratzu, Aulesti, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Etxebarria, Forua, Gaategiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Gizaburuaga, Ibarangelu, Ispaster, Kortezubi, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendata, Mendexa, Morga, Mundaka, Munitibar Arbatzegi Gerrikaitz, Murueta, Muxika, Nabarniz, Ondarroa eta Sukarrieta.

Orokorrean, titularretako bat EAEn urte betez errolatuta egon beharko da, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 25. artikulua.

2.2. Etxebizitza beharraren baldintzak

3/2015 Legeak, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena, 8. artikuluan arautzen ditu etxebizitza beharra adierazten duten baldintzak; martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua 17. artikulua ere arlo bera arautzen du (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2008ko martxoaren 28an argitaratua), eta 2012ko urriaren 15eko Agindua, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2012ko urriaren 31an), eta baita ere azken honen akatsen zuzenketa, 2012ko abenduaren 12ko AGINDUA (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2012ko abenduaren 28an). Arau honen 9. artikuluan agertzen dira araubide orokorrari salbuespenak.

- Etxebizitza-premia: Bizikidetzaren unitateko pertsona guztiek ez dute etxebizitzarik izan behar jabetzan, azalera-eskubidean edo gozamenean inskripzio-eskaeraren datatik aurreko bi urteetan. Jabetza soila izanez gero, alokairu-erregimenean bazarrik inskribatu ahal izango da.

Eskatzaileak etxebizitza-premia izateko baldintzatik salbuetsita izango dira baldin eta honako egoeratako batean baleude:

- Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko azaroaren 30eko 317/2002 Dekretuan, edo ordezkatzeko duen araudian, ezarritako gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea, eta martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzkoaren, 17.3 artikuluan ezarritako data bako bako bost urte lehenago gutxienez eskuratua izatea.

Arlo horretan eskumena duen teknikari baten txostenaren arabera eraikuntza-konponbideak onartzen ez dituzten hutsuneak bakarrik hartuko dira kontuan. Nolanahi ere, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzetako zerbitzu teknikoek aurkako txostenak eman ahalko dituzte, eta lotesleak izango dira horiek.

- Banantzeko edo dibortziazteko edota izateko bikoteak amaitzeko prozesu baten ostean, judizialki beste ezkontidearen familia-helbide gisa esleitua izatea.
- Gerora sortutako ordaintzeko ezintasunaren ondorioz, hipoteka-betearazpena jaso ondoren hirugarren maila arteko odolkidetasunez edo kidetasunez ahaiderik ez diren pertsona bati epaiketa bidez edo fede-emaile bidez esleitua izatea.
- Indarreko araudian xedatutako irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, titularrak 70 urtekoak edo gehiagokoak direnean.
- Bere azalera erabilgarria pertsona bakoitzeko 15 metro kuadro baino txikiagoa izatea.



- Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzekoan, jasotako sarbideei eta igogailuei buruzko xedapenak betetzen ez dituen eraikin batekoa izatea, betiere haren kideetako bat mugikortasun mugatu iraunkorra duen desgaitua bada.

2.3. Baldintza ekonomikoak

Ahalmen ekonomikoari buruzko baldintzak oinarri hauek onartzeko unean indarrean daudenak izango dira. Gaur egun 2011ko irailaren 14ko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatu beharreko urteko diru-sarrera haztatuen mugak aldatzeko Aginduan daude jasota, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuaren Azken Xedapenetako seigarrenak aldatuta.

Diru sarreren justifikazioa, Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan agertzen direnez, bertan agertzen denarekin justifikatuta geldituko dira.

Gauzak horrela, 2019. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak 12.000 euro baino txikiagoak ez direla eta 39.000 euro baino handiagoak ez direla egiaztatzea eskatzen da.

Mugikortasun murriztua duten elbarriek edo desgaitasun psikikoa duten pertsonen nahikoa dute 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek ez dute gutxieneko diru-sarrerarik egiaztatu beharko.

3. Zozketako partaideak

Zozketan parte hartzeko ezinbesteko izango da interesa duten pertsona altan emonda egotea, Bermeon Babes Ofizialeko Etxebizitza erosketarako Etxebide-Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan.

Izena emanda egon beharko dira 2021/01/31 rako.

Zozketan parte-hartzeko interesa duten pertsonak Berualaren bulegora joan beharko dute, eta etxebizitza hauen esleipen prozeduran parte hartu nahi dutela adierazi beharko dute Berualan jasoko duten inprimaki baten bidez 2021/01/31 data hau baino arinago.

Kreditatu beharko dute Babes Publikoko Etxebizitzak Esleitzeko Zerbitzu Publikoaren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta daudela.

Horrela ez bada, Berualan bertan tramitatu ahal izango dute euren inskripzioa telematikoki.

4. Behin-behineko zerrendak

Eskariak jasotzeko epea amaitzen denean, Bermeoko Udalak Etxebideri eskatuko dizkio esleipen prozedura honetan parte hartu nahi dutenen datuak eta horrela aztertu ahal izango du zozketan parte hartzeko baldintzak betetzen diren ala ez. Onartutako eta baztertutako parte-hartzaileen behin-behineko zerrendak prestatuko dira (baztertutakoe-tan adierazi egingo da baztertze horren arrazoia). Zerrenda horiek Bermeoko Udaleko iragarki oholetan argitaratuko dira hamar lanegunetan, baita Udalaren web orrian ere (www.bermeo.eus), eta Berualako bulegoan ere.

Hamar eguneko epealdi horretan, baztertutakoek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, baztertze hau bidezkoa ez dela iritziko baliote. Erreklamazio hori idatziz aurkeztu beharko da Berualan, bakoitzak adieraziko dituen arrazoiak oinarritzeko egoki irizitako agiri frogagarri guztiekin batera.

Parte-hartzaileen zerrenda kopurua, orotara, bikoa izango da etxebizitzen zozketan esku hartzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona edo bizikidetzta-unitateentzat.

Bi zerrenda horietako bakoitza ondorengo pertsona edota bizikidetzta-unitateei dagokiona izango da:

1. Mugikortasuna murrizturik duen pertsonarentzako gordetako etxebizitza eskuratu nahi dutenena. Zerrenda hori kupo bat eta bakarra izango da, eta bertan



jasoko dira Erkidegoan indarrean den araudiaren arabera izaera hori duten pertsonak.

2. Mugikortasuna murriztuta duten pertsonentzat egokituak ez dauden etxebizitzetakoaren bat eskuratu nahi dutenena.

Honen harira, 2012ko urriaren 15eko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzailen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Aginduaren 27. artikulua zehazten du etxebizitza egokia zer den:

27. artikulua. — *Etxebizitza egokia*

1. Esleitzeko prozeduretan, bizikidetz-unitatearen premientzat egokia dela jotzen da kide eta logela kopuruaren artean honako erlazio hau duena:

- a) Logela bat gehienez bi kiderentzat.
- b) Bi logela gehienez lau kiderentzat, bikotea osatzen ez duten bi pertsona edo mediku espezialistaren aginduz bere logela eduki behar duen pertsona bat bizikidetz-unitateko kide badira izan ezik.
- c) Hiru logela gehienez sei kiderentzat.
- d) Lau logela edo gehiago zazpi kideetik aurrera.

2. Esleitzeko prozeduraren barruan bizikidetz-unitatearen premientzat egokia ez den etxebizitza bat errefusatzeko ez da uko-egitetzat joko 18. artikuluan f) paragrafoan xedatutako ondorioetarako, salbu eta berau eskuratzeko interesa agertu badute 30. artikuluan 2. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

Eskatzailen kopuru guztia txikiagoa balitz zozketatu beharreko etxebizitzaren kopurua baino, sustatzaile-erakitzzaileak zuzenean besterendu ahal izango ditu oinarri hauetan onartutako prozeduraren arabera esleitu ez direnak, betiere kasu guztietan honelako etxebizitzaren eskualdatzeak dituen Lege-zehaztapenak betetzekoan.

5. Behin betiko zerrendak eta etxebizitzaren zerrenda

Egindako erreklamazioak erabaki ondoren, zozketan parte hartzeko onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak argitaratuko dira Udalaren oholetan eta internet-orrian.

Behin betiko zerrendak onartzeko erabakiaren aurka, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango da, nahi izanez gero, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsua.

Behin betiko zerrenda horiek ondorengo datuak izango dituzte:

- Eskarian buru egiten duen pertsonaren izena eta nortasun txartela.
- Zein kupotan hartuko duen parte.

Parte-hartzaileak behin betiko zerrendetan onartu moduan agertzeak ez du esan nahi eskatutako baldintza eta betebeharrak betetzen dituztenik. Horiek egiaztatu egingo dira etxebizitzak behin betiko esleitu aurretik.

6. Zozketa

Parte-hartzaileen behin betiko zerrendak argitaratzearekin batera, zozketaren eguna eta ordua ere adieraziko dira.

Zozketa fede-emaile publikoaren aurrean egingo da. Eta irekia izango da, edozein pertsona bertaratu ahal izango da hura ikustera.

Zozketa bateratua egingo da etxebizitza guztietarako, baina esandako lehentasun-taldearen arabera zozketatuko dira (lehenengo, Bermeon gutxienez azken urtebetean —oinarri hauek onartu zirenetik— erroldatuta dauden artean; bigarren, baldintza hori bete gabe Bermeon erroldatuta dauden artean, betiere oinarri hauek argitaratu baino lehen erroldatuta badaude; hirugarren, Eremu Funtzionalean udalerrietako batean erroldatuta dauden artean; eta azkenik, gainontzeko eskatzailen artean) eta baita kupoen arabera ere.



7. Esleipena egiteko modua

7.1. *Esleitzeko prozedura eskatzaile kopurua etxebizitzena baino handiagoa denean.*

1. Prozeduran sartutako eskatzaile kopurua sustapeneko etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, esleipena fede-emaile publikoaren aurreko zozketa publiko bidez egingo da, zehaztutako lehentasun-hurrenkeraren arabera.

Esleipena egiteko orduan etxebizitzak bizikidetza-unitatearen beharretara egokitzen direla hartuko da kontuan.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 62.2 artikuluan gainokupazioari buruz jasotakoa kontuan hartuta, prozedura honetan sei edo kide gehiagoko bizikidetza unitateek ezingo dute parte hartu.

Era berean 27. artikuluan Aginduak esaten du (2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bititokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa) etxebizitza egokia zer den. Etxebizitza hauek banatzerakoan kontuan izango da irizpide hau:

- a) Logela bat gehienez bi kiderentzat.
- b) Bi logela gehienez lau kiderentzat, bikotea osatzen ez duten bi pertsona edo mediku espezialistaren aginduz bere logela eduki behar duen pertsona bat bizikidetza-unitateko kide badira izan ezik.
- c) Hiru logela gehienez sei kiderentzat.
- d) Lau logela edo gehiago zazpi kideetik aurrera.

2. Prozeduran sartutako pertsona edo bizikidetza-unitate bakoitzari parte hartzeko zenbaki bat emango zaio zozketa egin aurretik. Zozketan parte hartzeko zenbakiak ausaz emango dira; hala, 1 zenbakitik hasi eta korrelatiboki jarraituko da harik eta prozeduran sartutako eskaera guztiei eman arte. Prozeduran sartutako pertsonen edo bizikidetza-unitateen dagozkien zenbakien berri emango zaie, gutxienez zozketa egin baino astebebe lehenago.

3. Sustapenaren etxebizitzak bi kategoriatan banatuko dira: mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonen egokitutako etxebizitzak eta egokitu gabeko etxebizitzak.

Kategoriatan banatutakoan, logela kopuruaren arabera taldekatuko dira etxebizitzak, garaiera handienetik beheranzko ordenan, eta egokitutakoarekin amaitu.

4. Zozketa egitean, lehenik eta behin, eskaera-zenbaki bat ausaz hautatuko da, eta horretatik hasiko dira etxebizitzak esleitzen, banan-banan sustapena amaitu arte.

Ondoren, egokitutako etxebizitzak gurpil-aulkian dauden pertsonen esleitzeko zaizkie lehenik, gero bi makulu nahitaez behar dituzten pertsonen eta, azkenik, 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinaren D) eta H) bitarteko paragrafoekin lotuta 7 puntu edo gehiago dituztenei. Esleitu gabe gelditzen diren egokitutako etxebizitzak baztertu egingo dira, Etxebizitza Sailak egokitutako etxebizitza baten beharrezana izango balu gune funtzionalean. Horrela ez bada esleitzen, etxebizitzari egokitutakoaren izaera kenduko zaio.

5. Zozketa fede-emaile publikoaren aurrean eta jendaurrean izango da, eta berorenguna eta tokia bere garaian jakinaraziko zaie interesatuei.

7.2. *Esleitzeko prozedura, etxebizitzaren kopurua eskatzaileena baino handiagoa denean*

1. Sustapeneko etxebizitzak bi kategoriatan banatuko dira: mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonen egokitutako etxebizitzak eta egokitu gabeko etxebizitzak. Egokitu gabeko etxebizitzak logela kopuruaren arabera taldekatuko dira, garaiera altuenetik eta beheranzko ordenan.

2. Ondoren, fede-emaile publikoaren aurrean, bizikidetza-unitateko kide kopuruaren arabera ordenatuko dira etxebizitza-eskaerak. Talde guztietan, etxebizitzak, goiko solairuetakoetatik hasita, aurreko lerrokadan ezarritakoaren arabera ordenatutako bizikidetza-unitateen esleitzeko zaizkie.



3. Lehenik eta behin, egokitutako etxebizitzak gurpil-aulkian dauden pertsoneri esleituko zaizkie aurrenik, gero bi makulu nahitaez behar dituzten pertsoneri eta, azkenik, 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinaren D) eta H) bitarteko paragrafoekin lotuta 7 puntu edo gehiago dituztenei. Esleitu gabe gelditzen diren egokitutako etxebizitzak baztertu egingo dira, Etxebizitza Sailak egokitutako etxebizitza baten beharrezana izango balu gune funtzionallean. Horrela ez bada esleitzen, etxebizitzari egokitutakoaren izaera kenduko zaio.

4. Eskaera kopurua talde batean edo gehiagotan etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, etxebizitza horiek egokiak diren bizikidetzta-unitateen artean zozketatuko dira, beti ere gainokupazioa eta etxe egokia irizpideak errespetatuz, 3.1.1 atalean zehaztu den bezala.

5. Etxebizitza hutsak gelditzen badira, sustatzaileak indarreko araudiak xedatutako baldintzak betetzen dituen edozein pertsonari edo bizikidetzta-unitateri besterendu ahal izango dizkio hutsik geratu diren etxebizitzak, banan-banan.

8. Esleipendunak

Jendaurreko zozketak ezarriko du zein pertsonari tokatu zaion eta zein etxebizitza eta garaje egokitu zaizkion.

Zozketaren ondorioz ezarritako hurrenkeraren arabera itxaron zerrendak ere egingo dira, ondoren zehaztuko diren egoeretan sor litezkeen hutsuneak betetzeko. Egoera horietan guztietan esleipendunak gabe geratutako etxebizitzak hutsune hori gertatu den kupoaren barruan esleituko dira.

Behin-behineko esleipendunen zerrendak, itxaron-zerrenda barne, Udalaren iragarki oholean, internet-orrian eta Beruala bulegoan argitaratuko dira.

Behin-behineko esleipena zuzenean ere jakinaraziko zaie onuradun gertatu diren pertsoneri, eta eskatu egingo zaie aurrez egiaztatuak ez lituzketen eta derrigor bete beharreko baldintzen gaineko agiriak aurkez ditzaten hilabeteko epea igaro baino lehen. Atzera botako dira aipatu den errekerimendu hori beteko ez luketen pertsona guztiak eta, horren ondorioz, aukera emango zaie dagokion itxaron-zerrendan dauden ondorengo pertsoneri.

Behin-behineko esleipendunak behin betiko bihurtuko dira BERUALAK egiaztatzen duenean norbanakoaren datuak eta aurkeztu dituzten agiriak zuzenak direla eta eskatutako baldintzei egokitzen zaizkiela. Hala gertatuko ez balitz, hau da, ikusiko balitz esleipena lortu duenak ez dituela betetzen oinarri hauetan eta arlo honetako indarreko araudian ezarritako baldintzak eta betebeharrak, pertsona edo bizikidetzta-unitate horrek plaza bat hutsik utziko du, eta hura ere bete egingo da itxaron-zerrendetako hurrenkeraren arabera.

Kupo bateko itxaron-zerrendan inor ez balego, beste kupoan gehituko da.

9. Uko-Egitea

Esleitutako etxebizitzari uko egiteko, pertsona edo bizikidetzta-unitate esleipendunek hainbat eta arinen aurkeztu beharko dute idazti bat hori adierazten.

Agindua, 2012ko urriaren 15ekoa

69. artikulua. — Uko egiteak

1. Sustatzaileak dagokion Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu beharko ditu esleitzeko prozeduran izandako uko-egite guztiak, esanbidezkoak zein isilbidezkoak.

2. Esleitutako etxebizitzari uko egiteak 18.f) artikuluan zehaztutako ondorioak izango ditu, etxebizitza horrek bizikidetzta-unitatearen bizitegi-premiei erantzuten dienean; xedapen horrek Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko baja arautzen du.

**10. Behin betiko esleipena egin ondoreneko betebeharrak**

Etxebizitza hauetakoren baten esleipena lortu dutenek ondasun horren salerosketa kontratua gauzatzeko tramiteak bete beharko dituzte. Horrela, oinarri hauetako 3 A) atalean adierazita dagoenaren arabera ezinbestean titularkide izan behar duten pertsonen kontratua sinatu beharko dute.

Esleipenduna kontratua sinatzeko emandako epean ez bada agertzen, horretarako arrazoirik eman gabe, ulertu ahal izango da pertsona horrek esleipenari uko egiten diola, eta horrek aukera emango dio itxaron zerrendetan dagoen hurrengo pertsona edo bizikidetzatza unitateei, aurreko puntuan adierazi den salbuespen berarekin.

10.01. Babes ofizialeko etxebizitzaren lagapena egitea eta ezinbesteko baimena

Babes ofizialeko etxebizitzaren haien esleipena jasoko dutenen etxebizitza ohiko eta iraunkorretarako erabili beharko dira.

Esleitu diren babes ofizialeko etxebizitzak ezingo dira alokairuan besten laga, ez eta prekarioan ere, dagokion Lurralde Ordezkariek horretarako berariazko baimena ematen ez badu.

10.02. Kontratuak ikus-onestea

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta horiei erantsitako osagarrien jabetza eskualdatzeko edota horien gaineko eskubide errealak —hipotekarena izan ezik— eratzeko edozein eskritura publiko egin baino lehen, dagokion agiri pribatua aurkeztu beharko da Bermeoko Udalean eta Eusko Jaurlaritzaren Bizkaiako Etxebizitza Lurralde Ordezkaritzan, bertan ikus-onetsi dezaten, eta hura aurkeztearen ardura etxebizitzaren eskualdatzailearena izango da.

10.03. Etxebizitza horretan bizi beharra betetzen den ikuskatzea

Salerosketa kontratuetan honako baldintza-klausula jarriko da: onuradunak hitz emango du etxebizitza hori okupatuko duela eta bertan erroldatuko dela zozketa egiten denean indarrean dagoen legerian zehaztutako gehieneko epea igaro aurretik. Baldintza hori beteko ez balitz, kontratua amaitutzat eman eta etxebizitzaren jabe edo onuradun izaera galduko da.

Horrez gain, adierazi diren agiri horietan jarri egingo da erosleek Bermeoko Udalen udal administrazioak dituen ikuskatze zerbitzuei lagundu behar dietela, hala egiteko eskatzen zaienean, etxebizitza horretan bizitzearen betebeharra betetzen dutela egiaztatzeko udal ikuskaritzak eska liezazkiekeen agiriak emanez.

11. Araubide juridikoa

Bermeoko Udalak eta Berualak gaitasuna dute oinarri hauek interpretatzeko eta zuzentzeko.

Oinarri hauetan espresuki aurreikusita ez dagoen horretan, babes ofizialeko etxe bizi buruzko araudian xedatutakoa jarraituko da. Hala nola:

- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.
- Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxe bizi eta lurzoru arloko finantza-neurriei buruzkoa.
- Agindua, 2010eko azaroaren 3koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, babes ofizialeko etxe bizi gehieneko prezioak zehazteari buruzkoa.
- 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraio sailburuarena, etxe bizi eskatzaileen erregistroari eta araubide autonomikoko babes ofizialeko etxe biziak eta txandakako bizilekuak esleitzeko etxebizitza eskatzaileen erregistroari buruzkoa.
- 2011ko irailaren 14ko Agindua, Etxebizitza, Obra Publiko eta Garraio kontseilariarena, babes ofizialeko etxebizitza batean sartzeko eska daitezkeen urteko diru-sarreraz haztatuen mugak aldatzen dituenak.



- 210/2019 Dekretua, abenduaren 26koa, kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaeren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxe bizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa.

12. Datuen babes

Datuen babesari buruzko informazioa

Tratamenduaren izena	Babes Ofizialeko Etxebizitzaren kudeaketa Bermeoko udalerrian
Tratamenduaren arduraduna	Beruala, S.A., IFK: A-48459374, Andra Mari, 22, 48370-Bermeo, Bizkaia
Datuak Babesteko Ordezkarria (kontaktua)	Datuak Babesteko Ordezkarria e-Maila: dbo@bermeo.eus
Tratamenduaren xedea	Bermeon, babes ofizialeko zein tasatuko etxebizitzaren tramitazio eta kudeaketa bideratzea, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan, herritarrei etxebizitza bat eskuratzeko aukera emateko.
Tratamenduaren Oinarri juridikoa	DBEO: 6.1.b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko
Gordetze-epea	Bilduak izan ziren unean ezarritako helburua lortzeko behar besteko denboraz gordeko dira datuak, baita helburuak berak eta datuen tratamendua eragin litzaketen erantzukizunak zehazteko behar besteko denboraz ere. Ondoren, Ondare Historikoaren legedia aplikatuko da (7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa).
Hartzaileak	Datu pertsonalak honi laga ahal izango zaizkio: Gai honetan eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuk: Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza.
Eskubideak egikaritzea	Interesdunak bere datuak erabiltzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea egikaritu ahal izango du, baita datuon tratamendua mugatzeko edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazkia igorri beharko du goian adierazitako helbidera, bere NANaren edo identifikazio-agiri baliokide baten kopia erantsita. Informazio guztia eskuragai dauka: http://www.bermeo.eus/datuenbabesa.html Interesdunak, halaber, eskubidea dauka Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa aurkezteko.
Datuen jatorria	Datuak interesdunengatik eta beste Administrazio Publiko batzuetatik jaso dira partzialki.